



HONDARRIBIKO UDALA

## UDAL HILERRIKO ARAUTEGIA

### LEHEN KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

**1. Artikulua.-** “Domingotxoenea” izeneko Udal Hilerraren jabea Hondarribiko Udala da, eta berari dagokio horren administrazioa, beste administrazio publikoei dagozkien osasun eta hileta araudiari buruzko eskumenen eta kasu bakoitzean bidezkoa den jurisdikzio esku-hartzeen kalterik gabe.

Komunitate Erlijosoen esku geratzen dira elizaren eskumenekotzat jotzen diren eskubide espiritualak

**2. Artikulua.-** Hilerraren erregimen juridiko eta administrazioa arautuko dute, herri jabari eta/edo herri zerbitzuko arauak, osasun eta hileta araudiari buruzko legeriak, Udal Ordenantza Fiskalek eta Erregelamendu honek.

**3. Artikulua.-** Udal Zerbitzu Batzorde informatzaileak edo horren eginkizunak betetzen dituenak egingo ditu Hilerriko administrazio zerbitzu publiko hobegarako egoki irizten dituen proposamenak.

**4. Artikulua.-** Hilerriak honako zati hauek izango ditu: Kapera, hezurtegia, langileentzako aldagela, komuna eta desinfekzio-gunea, larrialdietarako botikina eta zerbitzu publikoak. Udalak behar berrietara egokitzeko handitu, murriztu aldatu edo gune berriak sortu ahal izango dituelarik.

**5. Artikulua.-** Pertsonen arteko eta beraien sinismenarekiko errespetu handia gorde behar da hilerrian. Printzipio horren aurkako edozein jokabide debekatuta dago.

## REGLAMENTO DEL CEMENTERIO MUNICIPAL

### CAPITULO PRIMERO

#### DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.-** El Cementerio Municipal denominado “Domingotxoenea” es propiedad del Ayuntamiento de Hondarribia. Sin perjuicio de las competencias que en materia de sanidad y policía mortuoria se atribuyen a otras Administraciones Públicas y la intervención jurisdiccional que en cada caso proceda, la administración del mismo corresponde al Ayuntamiento.

Se reservan a las Comunidades Religiosas los derechos espirituales de la jurisdicción eclesiástica que les estén reconocidos.

**Artículo 2.-** El régimen jurídico y la administración del Cementerio se registrarán por las normas relativas a los bienes de carácter de dominio y/o servicio público, a la legislación en materia de sanidad y policía mortuoria, a las Ordenanzas Fiscales municipales y al presente Reglamento.

**Artículo 3.-** La Comisión Municipal Informativa de Servicios o la que desarrolle sus funciones formulará las propuestas que estime convenientes para la mejor administración y prestación del servicio público del Cementerio.

**Artículo 4.-** El Cementerio dispondrá de las siguientes dependencias: Capilla, osario, cuarto de vestuarios, aseo y desinfección para el personal, botiquín de urgencia y servicios públicos. El Ayuntamiento con el fin de adaptar el servicio a las nuevas necesidades podrá ampliar, reducir, modificar y crear nuevas dependencias.

**Artículo 5. –** El Cementerio es un recinto en el que deben extremarse el respeto entre las personas y sus creencias. Se prohíbe cualquier comportamiento que vulnere dicho principio.

Era berean pasabideetatik bakarrik ibili behar da, hilobien esparruan sartu gabe. Ibilgailu motordunak nahiz motorrik gabeak sartzea edo bertan ibiltzea debekatuta dago, elbarrienak edo araudi honetan aurreikusitakoak izan ezik.

Animaliak sartzea debekatuta dago.

**6. Artikulua.-** Kontzesiodunarenak izango dira bertan jartzen diren hilarriak, gurutzeak eta bestelako ehorzketa-ikurrak edo hilobien esparrua mugatzeko erabiltzen diren elementuak, beraz beraiek arduratuko dira horien zainketaz eta konponketaz eta Udalak ez du inolako erantzukizunik izango horiek lapurtu edo hausten badituzte. Emakidaren epea amaitzean jabeek jaso egin beharko dituzte osagarri horiek. Jasotzen ez badituzte Udalak egokien ikusten duen helburuetarako erabiliko ditu, erreklamatzeko eskubiderik gabe.

**7. Artikulua.-** Kale salmentako araudiaren arabera, Hilerrri barruan nahiz horren kanpoko aldean merkataritzako jarduerak debekatuta daude.

**8. Artikulua.-** Hilobiak eta Hilerrrian eginiko jarduera guztiak jasoko dituen Erregistro Publiko bat egongo da. Erregistro hori honako liburu hauek osatuko dute:.

- a) Hilobi eta Nitxoen Erregistro Orokorra.
- b) Ehorzketena.
- c) Desobiratze eta Leku aldaketena.
- d) Jakinarazpenetarako sarrera eta irteerena.
- e) Era berean erreklamazio liburu bat egongo da.

**9. Artikulua.-** Hilobi eta Nitxoen Erregistro Orokorreko Liburuan gutxienez honako datu hauek jasoko dira:

- a) Hilobi. Kapera, nitxo edo hezurtegi bakoitzaren identifikazioa, zenbat departamentuz osatuta dagoen

Del mismo modo debe transitarse exclusivamente por los pasillos destinados a tal fin, evitando invadir las zonas destinadas a las sepulturas. Queda prohibido el acceso y uso de todo tipo de vehículos sean motorizados o no, salvo aquellos utilizados por minusválidos para su desplazamiento, y los utilizados en los supuestos previstos en este Reglamento.

Queda prohibida la entrada de animales.

**Artículo 6.-** La colocación de lápidas, cruces, y cualquier otro símbolo funerario, así como los elementos que definen el recinto de las sepulturas, son propiedad de sus concesionarios por lo que a ellos corresponde su conservación y mantenimiento, sin que al Ayuntamiento le corresponda responsabilidad alguna por las sustracciones o deterioros que puedan sufrir. Al término de la concesión correspondiente, los titulares de los mismos deberán retirarlos. En caso contrario el Ayuntamiento determinará su destino sin derecho a reclamación alguna

**Artículo 7.-** Se prohíbe cualquier actividad comercial en el recinto del Cementerio, y fuera de él con arreglo a la normativa aplicable a la venta ambulante.

**Artículo 8.-** Existirá un Registro Público de las sepulturas y operaciones que se realicen en el Cementerio. Este Registro Público constará de los siguientes Libros:

- a) Registro General de Sepulturas y Nichos.
- b) De Inhumaciones.
- c) De Exhumaciones y Traslados.
- d) De entradas y Salidas de Comunicaciones.
- e) Así mismo existirá un Libro de Reclamaciones.

**Artículo 9.-** El Libro Registro General de Sepulturas y Nichos contendrá como mínimo los siguientes datos:

- a) Identificación de cada sepultura, panteón, capilla, nicho u osario, con indicación del número de

- adieraziz.
- b) Emakidaren data, eta dagokionean eraikuntza obren altarena.
  - c) Titularraren edo titularren izen abizenak eta helbidea, eta kasu honetan kontzesiorako ordezkariarena.
  - d) Mortis-causaz eginiko eskualdaketak.
  - e) Ehorzketak, desobiratzeak edo beharrezko garraioak, izen-abizenak adieraziz.
  - f) Hilobien inguruko beste edozein gorabehera.

**10. Artikulua.-** Hilerria ireki eta ixteko ordutegia goizeko 9etatik ilundu artekoa izango da.

Igande eta jaiegunetan ez da ehorzketarik edo deshobiratzerik egingo.

## **BIGARREN KAPITULUA**

### **HILERRIAREN TXUKUNTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO ERREGIMENA**

**11. Artikulua.-** Udala arduratuko da hilerrietako osasun eta txukuntasunari, ehorzketei eta gainontzeko hileta zerbitzuei buruz indarrean dagoen araudia bete dadin.

#### **EHORZKETAK**

**12. Artikulua.-** Hilerrian hilobiratuko da ehorzketarako aurkeztu den gorpu oro, betiere legezko betebeharrak guztiak bete badira. Udala Ordenantza Fiskalean zehazten diren lurperatze eskubide guztiak bete beharko dira.

Zerbitzu hori egiten duten langileei ez zaie ezer ordainduko.

Ehorzketak hilobietan, nitxoetan, panteoietan edo kaperetan egin ahal izango dira. Ehorzketarako baldintzak indarrean dagoen osasun eta txukuntasunari buruzko Arautegiak zehazten dituenak izango dira.

- departamentos de que consta.
- b) Fecha de concesión y, en su caso, de alta de sus obras de construcción.
  - c) Nombre, apellidos y domicilio del titular o titulares, y en este caso del representante a efectos de la concesión.
  - d) Sucesivas transmisiones por mortis causa.
  - e) Inhumaciones, exhumaciones o traslados a que hubiere lugar, con notificación de nombre y apellidos.
  - f) Cualquier otra incidencia que afecte a la sepultura.

**Artículo 10.-** El horario de apertura y cierre del Cementerio será desde las 9 horas de la mañana hasta el ocaso.

Los domingos y festivos no se efectuarán inhumaciones ni exhumaciones.

## **CAPITULO SEGUNDO**

### **REGIMEN SANITARIO Y DE POLICIA MORTUORIA**

**Artículo 11.-** El Ayuntamiento velará por el cumplimiento de la normativa vigente en materia de sanidad y policía mortuoria de los cementerios, prácticas de enterramiento y servicios funerarios.

#### **INHUMACIONES**

**Artículo 12.-** Se dará sepultura en el Cementerio a todo cadáver que sea presentado para la inhumación y siempre que hayan sido cumplidos los trámites legales, debiendo satisfacerse los derechos de enterramiento que se señalan en la Ordenanza Fiscal municipal.

En ningún caso procederá el abono de cantidad alguna al personal que preste el servicio.

Los enterramientos podrán realizarse en sepulturas, nichos, panteones y capillas. Las condiciones de los mismos serán las que determine el Reglamento de Sanidad y Policía Mortuoria vigente.

**13. Artikulua.-** Ehorzketarako ezinbesteko baldintza izango da hil ondoren begiradapean eman beharreko arauzko epea amaituta egotea, eta hori epaile eskudunak baimendutako lur-emateko aginduarekin egiaztatuko da.

Gorpua aurkezten duen pertsona fisiko edo entitateak Hilerriko zerbitzuen arduradunari aurkeztuko dio ehorzketarako beharrezkoa den dokumentazioa.

**14. Artikulua.-** Pertsona behartsuen gorpuen garraioa eta lur-ematea Udalaren kontura izango dira, baldin eta egoera hori behar bezala egiaztatzen bada..

**15. Artikulua.-** Udalak, zerbitzuaren funtzionamendu hobetzea lortzearen, lur-emateko ordutegia zehaztuko du. Gorpua aurkezten duenak, zerbitzuaren arduradunari galdetuko dio ehorzketaren ordua.

**16 Artikulua.-** Hilobi, panteoi edo kaperan ehorzketak bakoitza egin bezain laster bere losa itxiko dute zerbitzu horretaz arduratzen den langileek, eta hori egoera txarrean dagoelako kalterik sortuko balitz, ez lukete inolako erantzukizunik izango.

Onartutako edozein hilobitan egin beharreko lur emate oro, titularrak berak onartu beharko du alde zuzenetatik.

Nitxoan ehorzten bada, berehala hormigoizko estalkia jarriko zaio egurrezko falka batekin eutsita, eta gero zigilatu egingo da, lan horretaz Hilerriko langileak arduratuko dira eta horren kostua ehorzketako zergetan sartuko da.

Oro har gorpua era naturalean usteltzea galaraziko dion ezertan ezin izango da bildu.

**Artículo 13.-** Será requisito indispensable para proceder a la inhumación, que haya transcurrido el plazo reglamentario de observación desde el fallecimiento, circunstancia que se justificará con la orden de enterramiento que autorice el Juez competente.

La persona física o entidad que presente el cadáver entregará al responsable de la prestación del servicio del Cementerio la documentación requerida para poder efectuar la inhumación.

**Artículo 14.-** La conducción e inhumación de cadáveres de personas indigentes, será de cuenta y a cargo del Ayuntamiento, siempre que se acredite fehacientemente dicha circunstancia.

**Artículo 15.-** El Ayuntamiento fijará las horas de enterramiento atendiendo al mejor funcionamiento del servicio. Quien presente el cadáver deberá solicitar al responsable de la prestación del servicio la hora del enterramiento.

**Artículo 16.-** Después de cada enterramiento en sepultura, panteón o capilla, inmediatamente se procederá al correspondiente corrido de losa que se realizará por el personal responsable del servicio, no respondiendo de los daños que se pudieran producir en la realización de estos trabajos, si estos se produjeran por mala conservación del mismo.

Todo enterramiento que haya de efectuarse en cualesquiera de las sepulturas concedidas, requerirán de la autorización previa del titular o representante de la concesión.

Caso de efectuarse el enterramiento en nicho, inmediatamente después de la inhumación, se colocará una tapa de hormigón sujeta con una cuña de madera que posteriormente se sellará realizándose este trabajo por el personal responsable del servicio del Cementerio, y su costo será incluido en los derechos de inhumación.

Como norma general, en ningún caso se permitirá envolturas en los cadáveres que impidan o retrasen la descomposición natural de los cuerpos.

## **DESOBIRATZEA ETA BERREHORZTEA**

**17. Artikulua.-** Lurperatutako gorpuak eta gorpu-hondakinak ateratzea une bakoitzean indarrean dagoen Osasun eta hileta araudiaren arabera egingo da, pertsonalaren segurtasunerako behar diren neurri guztiak hartuta.

**18. Artikulua.-** Gorpuak, gorpu hondakinak eta hondakinen erredukzioak ateratzeko eta lekuz aldatzeko lanak Hilerrian jende gutxien dabilen orduetan egingo dira eta Osasun Ikuskaritzak esku hartu beharko balu, Hilerriko Arduradunarekin adostuko litzateke ordua.

**19. Artikulua.-** Nitxoen kontzesiorako urteak igarotakoan, eta beti ere, lurreko hobietan ehortzitakoen kasuan hamar urte igarotakoan eta Araudi honetan eta Osasun eta Hileta Araudian ezarritako izapideak burutu ondoren, gorpu hondakinak atera eta hezurtegitara eramango dira, baldin eta senitartekoek beste leku batera eramateko eskatzen ez badute.

## **GORPUEN DEPOSITUA**

**20. Artikulua.-** Edozein arrazoiengatik, gorpua depositura eramaten denean, bertan egongo da lurperatzeko arauzko epea amaitu arte, eta ehorketarako zehaztu den ordua iritsi arte. Gauza bera egingo da ehorketarako ordutegia amaitu ondoren hilerriera eramandako gorpuekin. Deposituan dauden artean inolaz ere ezin izango da beila egin.

## **HIRUGARREN KAPITULUA**

### **HILETA ESKUBIDEA**

**21. Artikulua.-** Hilobien eta nitxoen erabilerarako Udalak egindako kontzesioak, gorpuak eta gorpu-hondakinak ehorzteko baizik ez dira izango, zuzenean edota beharrezko obrak eginda.

## **EXHUMACIONES Y REINHUMACIONES**

**Artículo 17.-** La exhumación de cadáveres y de restos cadavéricos se regirá según la Normativa de Sanidad y Policía Mortuoria vigente en cada momento, empleando toda clase de precauciones para la seguridad del personal.

**Artículo 18.-** Las exhumaciones y traslados de cadáveres, restos y reducciones de restos, se efectuarán dentro del horario que coincida con el de menor asistencia de público al Cementerio, y si hubiere de intervenir la Inspección de Sanidad, cuando de mutuo acuerdo se fije con el Responsable del Cementerio.

**Artículo 19.-** Pasados los años de concesión temporal de nichos y, en todo caso, el plazo de diez años para los enterramientos en fosa de tierra, y efectuados los trámites correspondientes establecidos en este Reglamento y en la Normativa de Sanidad y Policía Mortuoria, los restos serán exhumados y transportados al osario común, si no han sido reclamados por los familiares para su traslado a otro enterramiento.

## **DEPOSITO DE CADÁVERES**

**Artículo 20.-** Cuando por cualquier motivo, sea llevado un cadáver al depósito, permanecerá allí hasta pasado el plazo legal para su enterramiento, y se inicie el horario señalado para las inhumaciones. Lo mismo respecto a los cadáveres conducidos después del horario de inhumación, sin que en ninguno de los casos se permita velarlos durante su permanencia en el lugar de depósito.

## **CAPITULO TERCERO**

### **DEL DERECHO FUNERARIO**

**Artículo 21.-** La concesión de uso de sepulturas y nichos y demás lugares de enterramiento hechas por el Ayuntamiento, se entienden otorgadas exclusivamente para sepelio de cadáveres y de

Horrenbestez, bertan egiten diren eraikinak, arlo guztietan, Arautegi honetan zehazten diren baldintzez gainera, une bakoitzean indarrean dauden Osasun eta hileta Araudiak diotena bete beharko dute.

Nitxoetan ehorzteko eskubidea, hiltzeko orduan bakarrik lortu ahal izango da edota gorpuhondakinak beste leku batetik ekarri behar direnean.

Ez zaio hilobirik ukatuko lur-emateko aurkezten den gorpuari, baldin eta legezko tramiteak bete badira eta gutxienez ondoren adierazten diren baldintza hauetariko bat betetzen badu:

- a) Hondarribian jaioa izatea.
- b) Udalerri honetan erroldatuta dagoen pertsona izatea
- c) Aurreko atalean aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonen aurreko edo ondorengo zuzenak izatea.

Udalak Ebazpen berezi baten bidez onar lezake baldintza hauek betetzen ez dituzten gorpuen ehorzketa, egoera eta behar bereziak kontuan hartuta.

**22. Artikulua.-** Gorpuen ehorzketarako egokituriko nitxoen erabilera hamar urterako emango da. Epea amaitzean, gorpuhondakinak murriztu eta hezurtegira eramango dira. Epea amaitu aurreko hiru hilabeteetan beste ehorzleku batera aldatzeko eskatzen bada, dagozkion Ordenantza Fiskaletan zerbitzu horretarako zehazten diren zergak ordaindu beharko dira

Nitxoak erabiltzeko baimenak ematerakoan hurrenkera jarraituko da, beraz ezinezkoa izango da hutsik dagoen beste edozein nitxotan ehorzteko eskatzea.

restos humanos, directamente o previa realización de la obra de fábrica pertinente. En consecuencia, las construcciones que se levanten estarán sujetas, en todos los aspectos, a las condiciones que señale este Reglamento, y a las Normas vigentes en cada momento sobre Sanidad y Policía Mortuoria.

El derecho funerario, respecto a los enterramientos en nichos, sólo podrá obtenerse en el momento de la defunción y en el caso de traslado de cadáveres o restos cadavéricos.

No se negará sepultura a ningún cadáver que sea presentado para su inhumación siempre que hayan sido cumplidos los trámites legales y se cumpla inexcusablemente al menos uno de los siguientes requisitos:

- a) Ser natural de Hondarribia
- b) Se trate de persona empadronada en este Municipio.
- c) Se trate de ascendientes o descendientes directos y colaterales de personas que se encuentren en alguna de las situaciones descritas en los apartados anteriores.

El Ayuntamiento podrá acordar la inhumación de cadáveres que no cumplan estas condiciones, atendiendo a las circunstancias y necesidades excepcionales mediante Resolución expresa.

**Artículo 22.-** El uso de los nichos destinados a la inhumación de cadáveres se concederá por un periodo de diez años. Al finalizar el plazo se procederá a la reducción de restos y su traslado al osario común. Si en el plazo de los tres meses precedentes al vencimiento del plazo, se solicita el traslado a otro enterramiento, éste se efectuará abonando los derechos y exacciones que se fijen en las Ordenanzas Fiscales correspondientes por la prestación de dichos servicios.

Se observará un orden sucesivo en el otorgamiento de autorizaciones para la ocupación de nichos, por tanto, en ningún caso habrá lugar a posibilidad alguna de elección para que la inhumación se produzca en cualquiera de los nichos que se encuentren libres.

Nitxoak taldeka sailkatuta egongo dira eta taldeak lerroka; lerro bakoitzean dagokien zenbakia izango dute nitxoek. Kontzesioaren egiaztagiri gisa Udaletxean ematen den dokumentazioan hori guztia zehazki azalduko da, baita kontzesioaren amaiera data ere.

**23. Artikulua.-** Panteoien, hilobien edo kaperen kontzesioa berrogeita hamar urterako izango da. Epe hori luzatu ahal izango da gehienez berrogeita bederatzi urteko beste epe berri baterako, kontzesiodunak edo horren ordezkariak eskatuta, horretarako eskumena duen Udal Organo batek hartutako erabakiaren bidez eta dagozkion zergak ordainduta.

Araudi hau indarrean jarri aurretik egindako kontzesioetarako, goiko paragrafoan xedatutako epearen ordezkari beste bat finkatuko balitz, emakida hori onartzen den egunetik kontatuko litzateke.

Bestalde, emakidarako erabakian eperik jarri gabeko kontzesioak badaudela kontuan izanik, berrogeita hamar urteko epe hori 1979ko uztailaren 27tik kontatuko da.

Eta azkenik, kontzesio horiek betirako eginak balira, horien iraupena gehienez laurogeita hemeretzi urtekoa izango litzateke, egin den edo egingo den lehenengo titularitate aldaketatik kontatuta, eta epe hori amaitzean luzatzeko inolako eskubiderik gabe.

Hilobiak eta panteoiak erabiltzeko kontzesioa lehiaketa publiko bidez egingo da eta dagozkion Pleguetan ezartzen diren baldintzen arabera, baldintza horiek, betiere, Araudi honek diona bete beharko dute.

**24. Artikulua.-** Hilobi, panteoi edo kaperan ehorzteko baimenik ez da emango, baldin eta kontzesiodunak edo horren ordezkariak sinatutako erabilerarako baimenik Udaletxean

Los nichos estarán clasificados por agrupaciones y éstas divididas en filas; dentro de cada fila los nichos figurarán con su número correspondiente. En la documentación que se expida en el Ayuntamiento, como justificante de la concesión, constarán bien especificados éstos, así como la fecha de finalización de la concesión.

**Artículo 23.-** La concesión de uso de sepulturas, panteones o capillas será por plazo de cincuenta años. Este plazo podrá ser prorrogado por otro nuevo plazo no superior a cuarenta y nueve años, mediante acuerdo adoptado al efecto por el Organo Municipal competente, a instancia del titular de la concesión o de su representante ante el Ayuntamiento, y satisfaciendo la correspondiente tasa.

Si en el acuerdo de otorgamiento de las concesiones que se hayan otorgado hasta la fecha de entrada en vigor de este Reglamento, se estableciera otro plazo distinto al dispuesto en el párrafo anterior, el mismo se contará a partir de la fecha del acuerdo de otorgamiento.

Por otra parte, teniendo en cuenta la existencia de concesiones en las que no se fija plazo en su acuerdo de otorgamiento, el referido plazo de cincuenta años se contará a partir del día 27 de julio de 1.979.

Y por último, si las concesiones hubieran sido otorgadas con carácter perpetuo, se considerará que el plazo máximo de concesión es el de noventa y nueve años, contado a partir del primer cambio de titularidad que se produzca o se haya producido, y sin derecho a prórroga una vez cumplido dicho plazo.

La concesión de uso de sepulturas y panteones se hará mediante concurso público con arreglo a las condiciones que se establezcan en los correspondientes Pliegos, que en todo caso se deberán atender a lo dispuesto en el presente Reglamento.

**Artículo 24.-** No se autorizará ninguna inhumación en sepulturas, panteones o capillas sin que se presente el oportuno permiso de uso firmado por el titular de la concesión o su

aurkezten ez bada.

**25. Artikulua.-** Kontzesioduna arduratuko da ondorengo ehorzketetarako behar adina leku izan dadin, hilobi, panteoi eta/edo kaperen erabilerarako emakida duen bitartean, gorpuzkinen garbiketari ekin beharko diolarik lekua betetzear dagoenean.

**26. Artikulua.-** Zerbaitegatik hilerria itxiko balitz, kontzesiodunek ez lukete eskubiderik izango hilobiengatik edo lurrengatik inolako kalte-ordainik jasotzeko.

Udalak, Hilerria eraberritu behar duelako edo ixteko erabakia ez den beste edozein arrazoiengatik, hilobi, panteoi edo kaperaren bat emakidaren epea amaitu baino lehen ezabatu beharko balu, kontzesiodunari beste hilobi bat emango lioke epea amaitu bitarteko denboraldirako.

Kontzesiodunek eskatzen badute eta egoeraren arabera, hileta eskubideen aurre itzulketa onartzeko askatasun osoa izango du Udalak, une horretan indarrean dagoen Ordenantzak finkatutako balioaren portzentaia ordainduz, portzentaia hori, kontzesioaren epea amaitzeko geratzen den denboraldiaren araberako beheranzko parekotasunean finkatuko da, luzapenik sartu gabe eta gehienezko mugapean, beti ere %50koa, apaingarriengatik edo egindako eraikuntzengatik ezer ordaindu gabe eta itzulketa horrek sortutako gastuei dagokiena kenduta.

**27 Artikulua.-** Hilobien, panteoien, kaperen edo nitxoen erabilera-eskubidea duten titularren betebeharra da horiek garbi, txukun, ondo apainduta eta kontserbazio egoera egokian mantentzea.

**28. Artikulua.-** Hileta eskubidearen kontzesiorako tituluak honako datu hauek izango ditu:

- a) Hilobiaren eta ehorzlekuaren identifikazioa.
- b) Hasierako zerga ordainketa.
- c) Esleipenerako data, horren izaera eta zenbat

representante ante el Ayuntamiento.

**Artículo 25.-** Dentro del periodo por el que se otorga la concesión de uso de las sepulturas, panteones y/o capillas, será responsabilidad del concesionario tener la disponibilidad de espacio necesario para futuros enterramientos, debiendo proceder a la limpieza de restos, cuando esté próxima a agotarse su capacidad.

**Artículo 26.-** Los concesionarios no tendrán derecho a indemnización alguna por los terrenos o sepulturas objeto de la concesión o por las construcciones cuando por cualquier causa se clausurase el Cementerio.

Si el Ayuntamiento, por reforma del Cementerio u otra causa distinta del acuerdo de clausura, hubiera de suprimir alguna de las sepulturas, panteones o capillas, cuyo plazo de concesión no haya transcurrido, asignará al concesionario otra sepultura en sitio distinto hasta la finalización de aquel plazo.

El Ayuntamiento podrá aceptar, libremente y atendiendo a las circunstancias, la reversión anticipada solicitada por los concesionarios de sus derechos funerarios abonando un porcentaje del valor que fije la Ordenanza vigente en el momento de la reversión, fijándose tal porcentaje en una equivalencia descendente en atención al plazo de concesión que reste, sin inclusión de la posible prórroga, con el tope máximo, en cualquier caso, del 50%, sin que se abone cantidad alguna por las ornamentaciones o alzados construidos, y descontando de dicho abono cuantos gastos conlleve la reversión.

**Artículo 27.-** Es obligación de los titulares de la concesión de uso de las sepulturas, panteones, capillas o nichos, mantenerlos en debidas condiciones de higiene, ornato y conservación.

**Artículo 28.-** El título de concesión del derecho funerario contendrá los siguientes datos:

- a) Identificación de la sepultura o unidad de enterramiento de que se trate.
- b) Derechos iniciales satisfechos.
- c) Fecha de la adjudicación, carácter de ésta y



departamentuz osatuta dagoen, eta hala dagokionean hilobiaren eraikuntzako azken ziurtagiria.

- d) Titularraren edo titularren eta Udalaren aurrean ordezkatzeko dituenaren izen-abizenak.
- e) Ehortzi, desobiratu edo lekuz aldatuko diren gorpuen izen abizenak eta sexua eta ekintza horiek burutu diren data.
- f) Usufruktuariorik baldin badago, horren izena.

**29. Artikulua.-** Hileta eskubidea honela erregistratu-ko da:

- a) Eskatzaile baten edo batzuen izenean. Titularitate anitzaren kasuan, horietako bakoitzaren izen abizenak idatziko dira Udal Erregistroan, eta horietako bat izendatuko da beste guztien ordezkari izateko Araudi honen arabera dagozkion betebeharrak bete ditzaten, eta usufrukturik balego, hurrengo eskualdaketetan usufruktu hori duenaren izena azalduko da.
- b) Komunitate erlijiosoena edo ongintza etxe edo erietxeena, baldin eta Administrazioak horrela onartuak baditu, eta bertako kide, onuradun edo babestuen erabilerarako bakarrik .
- c) Lehenengo aldian bi ezkontideen izenean.

**30. Artikulua.-** Hilobien titularitatea eguneratu ahal izateko, bost urtetik behin berrikusi egingo da.

**31. Artikulua.-** Emandako hileta eskubidea iraungitzat jo eta berriro Udalaren eskuetara itzuli ahal izango da ondoko kasuetan:

- a) Titularrak edo bere oinordekoek uko egin diotelako.
- b) Eraikina hondatu delako, norberarena denean.
- c) Hilobia zaindu gabea, zikina eta hondatua dagoelako.
- d) Aldi baterako hileta eskubidea amaitu delako.

número de departamentos de que consta, y en su caso el certificado final de construcción de la sepultura.

- d) Nombre y apellidos de su titular o titulares y su representante ante el Ayuntamiento.
- e) Nombre, apellidos y sexo de las personas a cuyos cadáveres o restos, se refiriesen las inhumaciones, exhumaciones y traslados y fecha de tales operaciones.
- f) Nombre del usufructuario si procediese.

**Artículo 29.-** El derecho funerario se registrará:

- a) A nombre personal e individual de uno o varios peticionarios. En caso de titularidades múltiples se deberá consignar en los Registros Municipales el nombre y apellidos de cada uno de los titulares, así como la designación de uno de ellos que represente a los demás a efectos del cumplimiento de las obligaciones que se derivan del presente Reglamento, y en el supuesto de que exista legado de usufructo en sucesivas transmisiones, el título figurará a nombre del usufructuario.
- b) A nombre de comunidades religiosas o establecimientos benéficos u hospitalarios reconocidos como tales por la Administración, para uso exclusivo de sus miembros y de los asilados y acogidos.
- c) A nombre de ambos cónyuges en el momento de la primera adquisición.

**Artículo 30.-** A efectos de tener actualizado el Registro de titularidades de sepulturas, cada cinco años se procederá de oficio a la revisión del mismo.

**Artículo 31.-** Podrá ser declarada la caducidad del derecho funerario concedido, revertiendo el mismo al Ayuntamiento, en los siguientes casos:

- a) Por renuncia del titular o de sus herederos.
- b) Por estado ruinoso de la construcción cuando ésta fuese particular.
- c) Por abandono de la sepultura, dando lugar a su deterioro, falta de higiene u ornato.
- d) Por finalizar el derecho funerario temporal.

- e) Epea amaitu arren, ordainketaren bat egin ez duelako.
- f) Emakidan adierazten den epea eta bere luzapena amaitu direlako.
- g) Titularra hil zenetik 10 urte igaro eta onuradun edo oinordekoek eskubidea erreklamatu ez dutelako.
- h) Arauz kontrako emakida delako edota Araudi honetan ezarritakoa bete ez delako.
- i) Araudi honen arabera dagozkion tasak ez ordaintzeagatik betearazpen bidea agortu delako.

- e) Por impago de cualquiera de los plazos a su vencimiento.
- f) Por el transcurso del plazo señalado en la concesión o del plazo de su prórroga.
- g) Por el transcurso de 10 años desde el fallecimiento del titular sin que sea reclamado el derecho por beneficiario o heredero alguno.
- h) Por cesión irregular o por incumplimiento de lo establecido en este Reglamento.
- i) Habiendo agotado la vía ejecutiva, por impago de las tasas que se deriven del presente Reglamento.

**32. Artikulua.-** Iraungitze espediente administratiboa modu honetara izapidetuko da:

a) Iraungitzea eraikin partikularraren hondamen egoeragatik gertatu bada, espedienteen jasoko da titularrari edo titularrei Udalaren aurrean duten ordezkariaren bidez eta Hilobien eta Nitxoien Erregistro Liburuan agertzen den helbidean egindako zitazioa, eta hogeita hamar urteko epea utziko zaie beraiek edo onuradunek, oinordekoek edo hartzaileek eta interesatu legitimo direnek espedienteen ager daitezten. Aipatutako edonork horretarako epearen barruan eraikuntza edo konponketa lanak egiteko konpromisoa hartuko balu, espedienteen eten egingo litzateke epearen amaiera arte, eta orduan, egindako obren berri emango lukete Zerbitzu Teknikoek. Horiek ontzat ematen badira, espedienteen beste inolako tramiterik gabe artxibatu egingo da, eta horrela izan ezean iraungitzat joko da.

Halaber, iraungitzat emango da hogeita hamar eguneko epea amaitzean titularrak, onuradunik, oinordekorik edo hartzailearik agertzen ez bada bere eskubidea alegatuz.

b) Aurreko artikuluko gainontzeko balizko kasuetan, c) eta d) ataletakoetan izan ezik, iraungitzeko espediente administratiboa izapidetzeko titularrari edo titularrei deitu besterik ez zaie egingo Udalaren aurrean duten ordezkariaren bidez, eta zortzi eguneko epea

**Artículo 32.-** El expediente administrativo de caducidad se tramitará de la siguiente manera:

a) En los casos de caducidad por estado ruinoso de la construcción particular, el expediente contendrá la citación del titular o titulares a través de su representante ante el Ayuntamiento, en el domicilio que conste en el Libro Registro General de Sepulturas y Nichos, concediendo un plazo de treinta días a fin de que aquellos y/o los beneficiarios, herederos o favorecidos y quienes tengan la cualidad de interesados legítimos puedan personarse en el expediente. La comparecencia de cualquiera de los citados, asumiendo el compromiso de llevar a cabo las obras de construcción o reparación en el plazo que a tal efecto se asigne, interrumpirá el expediente hasta su vencimiento, momento en que los Servicios Técnicos Municipales deberán informar respecto de las obras realizadas. Si resultan conformes, el expediente se archivará sin más trámite, en caso contrario se declarará su caducidad.

Igualmente se declarará la caducidad si transcurrido el plazo de treinta días no hubieran comparecido el titular, titulares y/o beneficiarios, herederos o favorecidos, ni interesados legítimos alegando en su derecho.

b) En los otros supuestos del artículo anterior, excepto los apartados c) y d), el expediente administrativo de caducidad se limitará a la citación del titular o titulares a través de su representante ante el Ayuntamiento, concediéndole un plazo de ocho días para ponerse

utziko zaie ordainketa eguneratzeko edo luzapena eskatzeko, epe hori amaitzean bete gabe balego, emakida iraungitzat jo eta hondakinak hezurtegi orokorrera eramango lirateke.

c) Aurreko artikuluko c) eta d) balizko kasuetan, titularrari edo titularrei eskatuko zaie, Udalaren aurrean duten ordezkariaren bidez eta Hilobi eta Nitxoan Erregistro Liburuan agertzen den helbidean, gorpu-hondakinak hezurtegiara eramane ditzatela, eta agertuko ez balira eskubide horiek iraungitzeko espedientea hasiko da, artikuluko honen a) atalean aurreikusitakoaren arabera.

Hileta eskubideak iraungitzat jo ondoren, Udalak eraikuntzak desegin eta hilobietan dauden gauza guztiak ken ditzake, gorpu hondakinik balego, horiek hezurtegiara eramanda, eta emakidaren titularrak ezingo luke inolako kalte-ordainik eskatu.

**33. Artikulua.-** Hilobi baten erabilera eskubidea, bere mota eta helburua edozein izanik ere, eskatzailearen edo eskatzaileen norbanako izen pertsonalean emango da beti.

Titular bat baino gehiago dauden kasuan, Udalaren aurrean pertsona batek bakarrik ordezkatzeko ditu beste guztiak, ondorio fiskalatarako, jakinarazpenetarako etab. Ordezkari hori, espedientean agertzen diren titularrek izendatuko dute, beraien artean hartutako erabakiaren bidez, eta horrela jakinaraziko diote Udalari. Erabaki hori adostuko ez balitz, indarrean dagoen Administrazio Prozedurari buruzko Araudiaren arabera izendatuko luke Udalak ordezkaria.

Hileta eskubidetik eratorritako baimenak titularretako edozeinek edo Udalaren aurrean ordezkari izendatutakoak emango ditu.

al corriente del pago o para solicitar la prórroga, cuando ésta pudiera darse, transcurrido dicho plazo sin haberse cumplimentado su objeto, se declarará la caducidad de la concesión, siendo trasladados los restos al osario general.

c) En los supuestos c) y d) del artículo anterior, se requerirá al titular o titulares a través de su representante ante el Ayuntamiento en el domicilio que conste en el Libro Registro General de Sepulturas y Nichos, a fin de que proceda al traslado de los restos a osarios, en caso de no comparecencia se incoará el expediente de caducidad de dichos derechos, siguiendo lo previsto en el apartado a) de este artículo.

Declarada la caducidad de los derechos funerarios, el Ayuntamiento podrá demoler las construcciones que hubiera, y retirar cuantos atributos y objetos se encuentren en las sepulturas, trasladando los restos cadavéricos que pudieran encontrarse en ellas al osario común, sin que el titular de la concesión pueda exigir indemnización alguna.

**Artículo 33.-** El derecho de uso de una sepultura, cualquiera que sea su clase y objeto, se otorgará siempre a nombre personal e individual de uno o varios peticionarios.

En los supuestos de pluralidad de titulares, una sola persona representará al resto ante el Ayuntamiento a efectos fiscales, de notificación, etc. Dicho representante será designado por los titulares recogidos en el expediente, previo acuerdo tomado entre ellos y comunicado expresamente al Ayuntamiento. De no lograrse dicho acuerdo la representación de aquellos ante el Ayuntamiento será resuelta conforme a las Normas vigentes en materia de Procedimiento Administrativo.

Las autorizaciones de uso que se deriven del derecho funerario se otorgarán bien por cualquiera de los titulares o bien por quien figure designado como representante ante el Ayuntamiento.

## LAUGARREN KAPITULUA

### TRANSMISIOAK

**34. Artikulua.-** Hilobi edo panteoien erabilerarako kontzesioaren titularitatea inolaz ere ezin izango da bizidunen artean laga, heriotzagatik bakarrik egin ahalko da, eta beti ere kontzesio epearen barruan.

Hala ere, hileta eskubidearen titularrak, edozein unetan izendatu ahal izango du bera hiltzen denerako hilobiaren onuraduna. Onuradun izaera hori ezkontideetara, aurreko eta ondorengo zuzenetara eta laugarren maila bitarteko zehar-ahaideetara mugatuko da. Bestelako kasuetan, Udal honek, egoera zehazki aztertu ondoren, baimendu ahal izango du aipatutako izendapena.

Onuradunen izendapen baten ondorengo testamentu klausularen bat balego, testamentu horrek aurreko izendapenak indarrrik gabe utziko lituzke. Oinordeko bat baino gehiago izendatuko balira, hauen titularitatea jasoko litzateke eta elkarrekin adostuta izendatu beharko lukete Udalaren aurrerako ordezkaria, adostasun hori lortuko ez balitz, indarrean dagoen Administrazio Prozedurako Araudiaren arabera erabakiko litzateke Udalaren aurrean ordezkari izango denaren izendapena.

Eskubidearen titularra hiltzean onuradunik edo oinordekorik ez balego, testamentu gabeko ondorengo izendatzeko Kode Zibilak zehazten dituen arauak ezarriko lirateke. Eskubide berbereko oinordeko bat baino gehiago balego, elkarrekin adostuta izendatu beharko lukete Udalaren aurrerako ordezkaria, adostasun hori lortuko ez balitz, indarrean dagoen Administrazio Prozedurako Araudiaren arabera erabakiko litzateke Udalaren aurrean ordezkari izango denaren izendapena.

Hileta eskubidearen titularra hiltzean, izendatutako onuradunak, testamentu bidezko oinordekoak edo testamenturik gabe dagokienak, behartuta daude haien izenean geratutako

## CAPITULO CUARTO

### TRANSMISIONES

**Artículo 34.-** La titularidad de la concesión de uso de sepulturas o panteones no podrá ser cedida intervivos, por ningún concepto, pudiendo transmitirse únicamente por causa de muerte, y todo ello dentro del plazo de concesión.

No obstante, el titular del derecho funerario podrá designar en cualquier momento un beneficiario de la sepultura para después de su muerte. Esta cualidad de beneficiario se limitará al cónyuge, ascendientes y descendientes directos y parientes colaterales hasta el cuarto grado del titular. En los demás casos, este Ayuntamiento, en atención a las circunstancias concretas del supuesto, podrá autorizar dicha designación.

En el caso de que existiera una cláusula testamentaria expresa posterior a cualquier designación de beneficiario, esta forma testamentaria anulará la designación anterior. Si se hubiese designado una pluralidad de herederos, se recogerá su titularidad y se designará de mutuo acuerdo un representante ante el Ayuntamiento, de no lograrse dicho acuerdo la representación de aquellos ante el Ayuntamiento será resuelta conforme a las Normas vigentes en materia de Procedimiento Administrativo.

Si a la muerte del titular del derecho no consta ningún beneficiario o heredero, se aplicarán las normas que el Código Civil determina para la sucesión intestada. En el supuesto de existir varios sucesores de igual derecho, deberán designar de mutuo acuerdo el representante ante el Ayuntamiento, de no lograrse dicho acuerdo la representación de aquellos ante el Ayuntamiento será resuelta conforme a las Normas vigentes en materia de Procedimiento Administrativo.

A la muerte del titular del derecho funerario los beneficiarios designados, los herederos testamentarios o aquellos a quienes corresponda

kontzesioaren transmisioa eskatzera, eta dagokion kontzesioaren titulua eta transmisioa egiaztatzen duten gainerako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, URTE BATEKO epean.

por abintestato estarán obligados a solicitar la transmisión de la concesión a su nombre, compareciendo con el título de concesión correspondiente y el resto de documentos justificativos de la transmisión, en el plazo de UN AÑO.

## **BOSGARREN KAPITULUA**

## **CAPITULO QUINTO**

### **ERAIKUNTZAK**

### **CONSTRUCCIONES**

**35. Artikulua.-** Hilobietan, panteoietan edo kaperetan edozein obra egiteko udal baimena beharrezkoa izango da.

**Artículo 35.-** Cualquier obra que se pretenda llevar a cabo en las sepulturas, panteones y/o capillas exigirá la previa autorización municipal.

Debekatuta dago zuhaitzak, zuhaixkak edo bestelako landareak landatzea.

Queda prohibida cualquier tipo de plantación de árboles, arbustos, plantas, etc.

Interesatuak Alkatetzari zuzendutako eskaera aurkeztuko dute eta horrekin batera, egin nahi dituzten obrei dagokien proiektua edo deskribapena eta aurrekontua, edo eraiki nahi dutenaren xehetasun grafikoak.

Los interesados presentarán solicitud dirigida a la Alcaldía, acompañando a la misma Proyecto y/o descripción, y presupuesto correspondiente a las obras a realizar, y, en su caso, detalle gráfico de lo que se pretende construir.

Udal Zerbitzu Teknikoek frogatuko dute obra horiek emandako baimenaren arabera egin ote diren.

Los Servicios Técnicos Municipales comprobarán que las obras se hayan realizando de acuerdo con la licencia concedida.

**36. Artikulua.-** Ezin izango da inolako obrarik hasi dagokion Ordenantza Fiskalak zehaztutako zergen ordainketari buruzko baldintza bete gabe.

**Artículo 36.-** No se podrá dar comienzo a ninguna de estas obras sin el previo requisito de haber satisfecho los derechos correspondientes, liquidados de acuerdo con lo que determine la correspondiente Ordenanza Fiscal.

Obretarako baimena frogatu ahal izateko, horren agiria noiz nahi eskatu ahal izango da .

En cualquier momento de la obra podrá ser exigida la presentación de la licencia concedida para su comprobación.

**37. Artikulua.-** Hilobi, panteoi edo kaperen eraikuntzarako material nobleak erabiltzea exijituko da.

**Artículo 37.-** En la construcción de sepulturas, panteones o capillas, se exigirá el empleo de materiales nobles.

**38. Artikulua.-** Obrak egiteko bakarrik sartu ahal izango dira ibilgailuak, eta horretarako, Hilerriko arduradunaren baimena beharko dute.

**Artículo 38.-** La entrada de vehículos se consentirá únicamente para la ejecución de obras con la previa autorización del Encargado del Cementerio.

Obrak amaitu ondoren, eraikitzaileek edo kontzesiodunak kendu egin beharko dituzte bertan geratutako material hondarrak, lurrak, harriak, hondakinak etab.. Era berean, ibilgailuekin edo beste tresnaren batekin, kale, lorategi edo eraikuntzetan egindako kalteak konpontzera behartuta egongo dira.

**39. Artikulua.-** Obren jabe, arduradun edo langileek Hilerri barruan egin ahal izango dute beren lana, bertako arduradunak baimendutako leku eta ordutegian.

**40. Artikulua.-** Obra bat egiteko baimena eman ondoren ezin izango da kanpoko itxura edo eraikuntza mota aldatu, lehenengo baimena eskuratzeko egindako izapide berdinak burututa baimen berri bat eskatu gabe.

Eraikuntzan egiten diren arau-haustek indarrean dagoen legeriaren arabera zigortuko dira.

Hilobi edo panteoietako obrak egiteko baimena eman arren, Udalak ez du inolako erantzukizunik izango horietan ari diren langile edo arduradunek jasan ditzaketan ezbehar, min edo kalteetan ez eta bisitara joandako edonork edo hileta eskubideen titularrek beren ondasunetan jasan ditzaketan kalteetan ere.

## **SEIGARREN KAPITULUA**

### **HILERRIKO LANGILERIA**

**41. Artikulua.-** Hilerriko kudeaketa, zainketa eta zerbitzuak Udalak garatuko ditu, zuzenean edo legeak aurreikusitako zeharkako beste edozein bide erabiliz.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Una vez terminada cualquier clase de obra, los constructores o en su defecto el concesionario interesado, vendrán obligados a retirar las tierras, piedras, escombros, y en general cualquier residuo de los materiales empleados. También vendrán obligados a reparar cualquier desperfecto que con vehículos o cualquier otro elemento hayan causado en calles, jardines, construcciones, etc.

**Artículo 39.-** Los dueños, encargados y operarios de las obras podrán efectuar su cometido dentro del Cementerio previa la autorización del Encargado de éste que determinará el lugar y horario en que pueden hacerse los trabajos.

**Artículo 40.-** Otorgada licencia para la ejecución de una obra, no podrá variarse la forma exterior o aparente, ni la disposición de la construcción, sin nueva autorización otorgada con arreglo a los mismos trámites que la primitiva.

Las infracciones que se cometan en materia de construcciones serán sancionadas con arreglo a la legislación vigente.

El Ayuntamiento queda exento de responsabilidad por los accidentes, daños o perjuicios que puedan sufrir los encargados y operarios de los trabajos que se lleven a cabo en los panteones o sepulturas, aunque haya sido autorizada su ejecución, y de los que puedan experimentar por cualquier causa las personas visitantes y los bienes de los titulares del uso funerario.

## **CAPITULO SEXTO**

### **PERSONAL DEL CEMENTERIO**

**Artículo 41.-** La gestión, conservación, guarda y prestación de los servicios del Cementerio, serán desarrollados directamente por el Ayuntamiento, o indirectamente a través de cualquiera de las formas previstas legalmente.

## **DISPOSICION ADICIONAL**

Araudi honetan aurreikusi gabeko guztian, toki araubideari eta osasun eta hileta araudiari buruz indarrean dagoen legezko araudiak xedatutakoa beteko da.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

**Lehenengoa.-** Xedapen hauek indarrean jartzen diren egunean, hildako pertsonen, familien edo pertsona anitzen izenean dauden kontzesioak, 28. Artikuluan aurreikusitakoari egokitu beharko zaizkio. Horretarako, Udalak interesatuei jakinaraziko die ordezkoa izenda dezaten, eta adostasunik lortu ezean, Udalak berak erabakiko du indarrean dauden Administrazio Prozedurako Araudien arabera.

**Bigarrena.-** Data hori baino lehen egindako bizien arteko edo izatezko transmisioak araututa geratu beharko dute urte beteko epearen barruan, hilobi, panteoi edo kaperen erabilera egiaztatzen duen dokumentazioa Udaletxean aurkeztuta, beti ere, hirugarren batzuk horiengan izan ditzaketen eskubideak salbu utzita, baldin eta dagokion jurisdikzioaren aurrean egiazta baditzakete. Arautzeko epe hori igaro ondoren, hileta eskubidea iraungitzat jo daiteke, araudi honetan aurreikusitakoaren arabera.

Dena dela, kontzesio horietarako epea Araudi honen 23 artikuluan xedatutakora egokituko da.

### **AZKEN XEDAPENA**

Araudi hau indarrean jarriko da, behin betikoz onartutako testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen biharamunetik hamabost lanegunetara.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

En todo lo no previsto en el presente Reglamento, se estará a lo dispuesto en la normativa legal vigente en materia de régimen local y de Sanidad y Policía Mortuoria.

### **DISPOSICION TRANSITORIA**

**Primera.-** Las concesiones que en la fecha de entrada en vigor de estas disposiciones figuren a nombre de personas fallecidas, de familias o de varias personas, deberán ajustarse a lo previsto en el artículo 28. A tal efecto, el Ayuntamiento emplazará a los interesados para que nombren a aquél que les va a representar, de no conseguir un acuerdo, la representación de aquellos ante el Ayuntamiento será resuelta conforme a las Normas vigentes en materia de Procedimiento Administrativo.

**Segunda.-** Las transmisiones por actos intervivos o por vía de hecho realizadas hasta la fecha, deberán ser regularizadas en el plazo de un año, previa presentación en el Ayuntamiento de documentación justificativa sobre la utilización de la sepultura, panteón o capilla, dejando a salvo en todo momento los derechos que terceras personas pudieran tener sobre los mismos, y que pudieran hacer efectivos ante la Jurisdicción correspondiente. Transcurrido el plazo de regularización podrá ser declarada la caducidad del derecho funerario conforme a lo previsto en este Reglamento.

En todo caso la determinación del plazo de estas concesiones quedará sometida a lo dispuesto en el artículo 23 de este Reglamento.

### **DISPOSICION FINAL**

El presente Reglamento, entrará en vigor transcurridos quince días hábiles desde el día siguiente a la publicación íntegra en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del texto del mismo aprobado definitivamente.

### **DISPOSICION DEROGATORIA**

Araudi hau indarrean jartzean derogatuta geratzen dira Hondarribiko Hilerriko Barne Erregimenerako 1975eko maiatzaren 29an onartutako Araudia eta hilobien eta nitxoen kontzesioa arautzeko geroztik hartu diren erabaki guztiak, horien arabera lortutako eskubideen kalterik gabe.

Con la entrada en vigor del presente Reglamento quedan derogados el Reglamento de Régimen Interior del Cementerio de la Ciudad de Hondarribia de 28 de mayo de 1975, y cuantos acuerdos posteriores han regulado la concesión de sepulturas y o nichos, sin perjuicio de los derechos adquiridos en virtud de los mismos.

**Hondarribia, 2007ko urtarrilaren 30a**